



ZESTOAKO UDALA



2022 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

JAKINARAZPENA

Honen bitartez jakinarazten dizut, Alkate jaunak. 2023ko otsailaren 2an emandako 15.zk duen ebazpena, honako hau xedatzen duena,

GIZARTE ZERBITZUEN INFORMAZIO BATZORDEAK, Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak kudeatzen duelarik, diru-laguntzaren bigarren ordainketa egiteko honako ebazpen-proposamena jakinarazi zidan:

- a) 2022ko apirilaren 29an, Zestoako Udalak Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza argitaratu zuen Udalaren Web, orrialdean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- b) Laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteko epea 2022ko irailaren 1ean amaitu zen eta epe barruan 8 eskaera aurkeztu dira, eta horiek Zestoako Udaleko Gizarte Zerbitzuen informazio batzordeak baloratu zituen Udalbatzak onartutako oinarriak kontuan izanik.
- a) 2022ko urriaren 20an Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** eman eta lehenengo ordainketa egin zen.
- b) Bigarren ordainketari dagokionez, Udalaren aurrekontuan laguntzaren inguruan egindako kontsignazio ikusita, eta Alkatetza izanik laguntza ebazteko eskumena duen organoa, ondorengo proposamena egiten dugu

Ondorioz,

ERABAKI DUT


LEHENA.- Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdiaren **behin-betiko ebazpena** ematea.

Zestoako herrian etxebizitzak alokatzeko diru-laguntza deialdia 2022 urterako.

Bigarren ordainketa

ZESTOAKO UDALAK ONARTUAK

ONURADUNA (NAN/IFK)	ONARTUTAKOA (Urritik - Abendura)
72471****	600,00 €
72523****	451,44 €
20181****	624,00 €
15245****	660,00 €



ZESTOAKO UDALA

2022 DEIALDIAREN ZESTOAKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA

JAKINARAZPENA

BIGARRENA.- Ebazpen hau diru-laguntza jasotzeko eskaera egin duten interesdun guztiei jakinaraztea eta Zestoa Udaleko web orrialde ofizialean publikatzea.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkate Ebazpen honen berri ematea.

Jakin dezazun eta ondorio egokietarako adierazten dizut hori, erabakia behin-betikoa dela eta administrazio bideo amaitzen duela jakinaraziz. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean. Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertzeke errekurtsua aurkez daiteke Zestoako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Zestean, 2023ko otsailaren 2an

IDAZKARIAK

O.e
ALKATEAK

72442418P Firmado
digitalmente por
MIKEL 72442418P MIKEL
ARREGI (R:
P2002800G)
Fecha: 2023.02.02
14:19:14 +01'00'

ANDER Firmado
digitalmente por
CESTONA ANDER CESTONA
UNANUE -
34107215D
34107215D Fecha: 2023.02.02
14:19:01 +01'00'